

III. ANDOAIN LABURREAN BIDEO LEHIAKETA 2017 - 2018

ANTOLATZAILEAK

Andoingo Udaleko Euskara Saila eta
ESCIVI (Andoingo Zine eta Bideo Eskola).
Laguntzailea: ELKAR argitaletxea.

*Andoainen, Euskararen Nazioarteko
Egunean, 2017ko abenduaren 3an.*

AZALA: OLBRAIT STUDIO



LAGUNTZAILEA: **elkar**

Ahoz aho,
bizi-bizi

WWW.ANDOAINDARRAEUSKARAZ.EUS

III. ANDOAIN LABURREAN BIDEO LABURREN LEHIAKETA OINARRIAK 2017-2018

PARTE HARTZAILEAK

1. 16 urte edo gehiago duen (2018ko abenduaren 31rako 16 urte betetzen dituztenak), profesionala ez den eta Andoainen bizi, ikasi edo lan egiten duen edozeinek parte har dezake lehiaketan.

LANEN EZAUGARRIAK

2. Bideoak hizkuntz edukiren bat izatekotan (ahotsa, musika, elementu grafikoak...), honek euskarazkoa behar du izan.
3. Gaia librea da eta ez du zertan mugaturik Andoainera edo beste ezein eremu geografikotara. Nolanahi ere, Andoaingo herriari edo Andoaingo pertsona edo gertakari ezagun bati buruzko erreferentziaren bat jasotzea hobetsiko da, ondorengo seigarren puntuan esaten den moduan.
4. Bideoek gehienez ere 15 minutuko iraupena izango dute (kredituak barne).
5. Lanek lehiaketa honetarako sortuak izan behar dute.
6. Edozein generotakoa izan daiteke lana: filmea, publizitate spota, elkarriketa, dokumental laburra, bideoklipa, bideoarte, animazioa... Andoaingo herriari edo Andoaingo pertsona edo gertakari ezagun bati buruzko erreferentziaren bat jasotzea hobetsiko da, eta hala egindakotzat joko da Andoainen grabatua izatea edo Andoain herriaren edo bertako pertsonaiaren baten aipamena nabarmentzea.

NOLA AURKEZTU LANAK?

7. Bi modutan aurkeztu ahal izango dira:
 - *My Air Bridge* (www.myairbridge.com) bidez bidali daitezke bideoak euskaraz bitzua@andoain.eus postara.
 - Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkez daitezke, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:00etara.

Bideoarekin batera entregatu beharko dira beste honako datuok ere: egilearen edo egileen izena eta abizenak, jaiotze data, Andoainekin duten harremana (bizi, ikasi edota lan egin), kontaktua eta bideo laburraren izenburua.

8. Lanak bakarkakoak edo taldekakoak izango dira. Partaide bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake, bakarka zein taldeka bada ere.

9. Lanak aurkezteko baliatu daitezkeen artxibo motak honakoak dira: mov, mpeg, flv eta wmv. Nahi den bereizmena izan dezakete lanek. Aukeran, 1280 x 720 p (HD Ready) edo 1920 x 1080p (Full HD) bada hobe.

10. Antolatzaileek ez dituzte nahitaez bere egiten aurkeztu diren lanetan egiten diren adierazpenak, erabilitako irudiak edota jasotako iritzia. Beraz, ez dute horien gaineko inolako erantzukizunik. Era berean, antolatzaileek lehiaketatik at utziko dituzte hirugarren pertsonen irudiari, ohoreari eta integritateari kalte egin dezaieketen lanak.

Informazio gehiago: www.andoainarraeuskaraz.eus webgunean, Andoaingo Udaletxeko Euskara Zerbitzuan, edo Andoaingo Bideo eta Zine Eskolan.

Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzua: 943 300 831
euskarazerbitzua@andoain.eus

LANAK AURKEZTEKO EPEA

11. 2018ko otsailaren 2a (ostirala) izango da lanak aurkezteko azken eguna.

SARIAK

12. Hona lehiaketako sariak:

1. Saria: 400 euro.
2. Saria: 200 euro.
3. Saria: 100 euro.

Sari horiez gain, saridunek Elkar argitaletxeak eskaintako materiala ere jasoko dute.

Epaimahaiak sariren bat eman gabe uzteko ahalmena izango du.

EPAIMAHAIA

13. Hiru adituk osatutako epaimahaiak erabakiko ditu sariak, betiere aurkeztutako lanen kalitate teknikoa, originaltasuna eta sormena kontuan hartuta. Honakoak dira epaimahaikideak: Joxefelipe Auzmendi (telebista eta bideo produktorea), Ainhoa Morales (telebistak 2. kamara laguntzailea) eta Joseba Sacristán Garmendia (kazetaria, GAZTEAko esataria).

SARI BANAKETA

14. Sari banaketako ekitaldia 2018ko otsailaren 15ean izango da, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan, arratsaldeko 19:00etan. Bertan jakingo da epaimahaiaren erabakia eta bertan lan onenak proiektatuko dira, KIMUAK proiektuko lan batekin batera.

BALDINTZETAN ALDAKETAK

15. Aurreikusitako gabeko gertakariaren bat suertatuko balitz, lehiaketako oinarri hauek aldatzeko aukera antolatzaileen esku gelditzen da, hau da, Andoaingo Udaleko Euskararen Normalizatorako Batzordearen esku, eta aldaketa justifikatu egin beharko luke.

